

# Garai sadomasokista. Boterea, mina eta egia egungo gizartean

Mitxelko Uranga Alvarez  
Filosofian doktoregaia

Lan honen helburua Mendebaldeko kulturean gertatzen diren botere-harremanen inguruko analisisa egitea da, zeinetan botere-harremanek matrize sadomasokista izendatu dugunari obeditzen dioten. Praktika sexual sadomasokisten eta Mendebaldeko botere-harremanen arteko analogia dugu matrize sadomasokista. Sexualitatearen esparruan bezala, bi matrize sadomasokista bereiziko ditugu, hala ere: modernoa eta hipermodernoa. Sadomasokismo moderno eta dialektikoak gizaki neurotiko (sadiko eta masokistak) eta histerikoak ekoizten zituen bezala, hipermodernoa eta ez-dialektikoak gizaki sadomasokistak ekoizten ditu, aldi berean sadiko eta masokistak izan daitezkeenak. Azken horien artean ere aurki daitezke bi gizaki mota ezberdin: neurotiko modernoaren oinordeko den sadomasokista falsua eta histeriko modernoaren oinordeko den egiazkoa.

GAKO-HITZAK: Sadomasokismoa · Boterea · Sumisioa · Menderakuntza.

## **Sadomasochistic times. power, pain and truth in contemporary society**

The aim of this work is an analysis of power relations in Western culture, those relationships that correspond to what we have called sadomasochistic matrix. Sadomasochistic matrix is an analogy between the relations given in sadomasochistic sexuality and power relations in society. As in sexuality, we distinguish two types of matrix: modern and hypermodern. If modern and dialectical sadomasochism was producing neurotic (sadist and masochist) and hysterical men, the hypermodern and non-dialectical sadomasochistic produces a new type, one who can be sadist and masochist at once. Among the latter also have to distinguish two types: the false sadomasochistic descending from neurotic and true descending from hysterical..

KEY WORDS: Sadomasochism · Power · Submission · Domination.

*Jasotze-data:* 2012-08-08. *Onartze-data:* 2012-09-25.

## 1. Sarrera

Postmodernismoak Egia kolokan utzi zuenetik, zaila egiten da egun Egia badela defendatzea; mesfidantza izugarri hedatu da; haatik, horrek ez du esan nahi egia ezberdinak ez daudenik —izan ere, gizabanako orok du egiaren bat euskarri—, mailaketarik gertatzen ez denik. Egungo nora ezean, ondorioz, badirudi egia definitzeko borroka bat bizi dugula, egia botere-tresna bilakatu dela nahitaez.

Egia beti doa ihes, antzemanezina da; horrezkero, egiaren ordeaz *fedea* esan genezake, «hau egia da» esaten dugunean «hau nire fedea da» esaten baitugu, azken batean; eta, ondorioz, egia definitzeko borrokaren ordeaz *fede-borroka* erabil genezake. Noski, borroka horretan, egia botere-tresna den neurrian, bezaketa-tresna zein erresistentzia-tresna gisa funtzionatu dezake. Bestela esanda, Egia-ekin batera narrazio handiak zein programazio modernoak ere kolokan geratu diren arren, oraindik ere badira gizabanakoak zentzu batean edo bestean gidatu edo zuzentzea helburu duten erritu edo protokolo anitz —eta gidatuak izan (babesa) nahi duten gizabanakoak, noski—. Zentzu horretan, oraindik ere, badira ezarriak zaizkigun egia edo fedea, erresistentzia-tresna funtzionatzen duten egia edo fedea dauden bezala.

Ematen du, Modernitatean bezala, egun ere jendetza izugarri batek jarraitzen duela ezarritako egiei men egiten nora eza eta larrimina ekidin nahian, bestelako jendetza edo gizabanako asko ezarri zaien egiarekin apurtzen saiatzen diren bitartean; hau da, oraindik ere jarraitzen dute batzuek bezatuak izaten, beste batzuk bezaketa sahiesten saiatzen diren bitartean

Globo osoa elkar komunikaturik izanik, ulertu dugu azkenik gurea ez dela egia bakarra, Egia edo benetako egia, eta badagoela bestelako egirik edo mundu-ikuskerarik. Are gehiago, elkar komunikaturik egotearekin batera elkarren mende-koak izatera ere ailegatu garen neurrian, *fededun* ezberdinekin harremanak izatera beharturik egonik, baliteke gizabanakoen arteko harremanak oso bestelakoak bilakatu izana. Zer-nolakoak dira harreman horiek?

Badirudi zer edo zer aldatu dela, gure aburuz, behintzat. Egun, Hipermodernitatea delakoan, desertuak sorrarazitako ezinegonari aurre egin ahal izateko egia-iturri bilakatu omen da harreman mota berria bat. Egiazko errealak mingarria izan behar du orain; sufritzen duenak du egia, boterea. Biktimismoa bilakatu da egun, horrezkero, botere-instrumentu baliagarriena, arteetan artea, menderatuz mozorroturiko menderatzailearen azpijokoa. Biktimak mendekua hartzeko esku-bidea du, biktimaren estatusa aitortzen baldin bazaio, noski. Nortzuk dira egun menderatuak eta menderatzaileak?

Eta hala eta guztiz ere, paradoxikoki, inoiz baino lotuago egonik ere, badirudi elkar menderakuntzak ez dituela gizabanakoen arteko komunikazio-bideak sendotu, ez duela interaktibitatea indartu, inter pasibotasuna baizik. Ematen du gehiengoak nahiago duela ezarritako egiari jarraitu edota besterik gabe ezer ez egin; pasiboa izan, azken finean.

Utopien eta mesianismoen gainbehera bizi duen garai honetan, ordea, ba omen dira, elkarmenderakuntza sahiestezina dela onartzearekin batera, ezarria izan nahi duen egiarekin apurtzen saiatu nahi dutenak ere, jada iraultza handietan

zein askatasun eta autonomia modernoan gehiegi sinesten omen ez duten bestelako ameslariak.

Egia berriren bat sortu edo ahalbidetu ahal izateko, aurreko egiaren batekin amaitu beharra dago nahitaez, subjektua betiere kanpo-botereren baten mendeen hasi/hazi/hezi egiten delako. Subjektuaren lehendabiziko identitatea eratu egiten da betiere kanpo-botereren baten mende aurkitzen denean. Horrekin guztiarekin apurtu bezain laster, bestelako federen bat besarkatu beharra dago, ez baitago ontologikoki garbia den nahi pururik.

Esandako guztiarekin ere, Foucault-ek esan bezala gizabanakoak benetan nor den ikertu eta aztertzeari uko egin behar badio ere errefuxatzeari ekiteko, lan honen helburu nagusia egun ekoizten den Gizaki mota benetan nor den ikertzea da; beste modu batean esanda, lan honen helburua Mendebaldeko kulturaren gizaki berrien artean gertatzen diren botere-harremanen inguruko analisia egitea da —non analisiak, gure analisia esan nahi duen—.

Horretarako, posibleak izan daitezkeen instrumentu eta paradigmak askotari-koak izanik ere, instrumentu hermeneutiko-analitikoa eraikitzea erabaki dugu, marko teoriko bat —analogia bat, metafora bat, nahi bada—: matrize sadomasokista. Edo, beharbada matrizeak esan beharko genuke, matrize sadomasokista modernoaz eta hipermodernoaz arituko baikara, paradigma-aldaketa bat nabarmentzea baitugu ere xede. Zerk bereizten ditu matrize biak, ostera? Nolakoak dira matrize horien ezaugarriak?

Logikoa denez, eta arestian esandakoari jarraiki, hemen defendatuko dugun irakurketak, eraikitako instrumentu hermeneutiko-analitikoak, ez du Egia izateko inolako pretentziorik; kontrara, errealitatearen ikuspegi askoren artean bat gehiago agertzea du xede.

## 1. Sadoomasokismo sexuala

*Histoire de la sexualité. La volonté de savoir* lanean Michel Foucault-ek giza sexualitatearen historia aztertzean apurketen edo kurben inflexioen berri ematen digu. Haren ustez, Erdi Aroko Mendebaldeko zibilizazioak uko egiten dio ordura arte zenbait zibilizaziotan nagusi zen *ars erotica*-ri orain dela gutxira arte gurean nagusi izan den *scientia sexualis*-ari bidea irekitzeko. Greziarren edota erromatarren arte erotikoan oinarrituriko ereduak baztertzeko da Erdi Aroan konfesioan oinarrituriko, eta *ars erotica* horretatik oso urrun dagoen, eredu berriarekin ordezkaturik. Orduetik, pentsalari frantziarraren hitzetan, gurea bilakatu da inolako *ars erotica*-rik ez duen eta *scientia sexualis*-a duen zibilizazio bakarra.

Denborarekin, konfesioak zientziari utzi zion bidea eta honek ahalbidetu du azkeneko mendeetan Erdi Aroko diskurtso bateratua zabaltzea eta zatitzea psikiatriaren, biologiaren, moralaren eta beste diziplina askoren forma hartu izan duten sexuaren inguruko diskurtso anitzei bidea irekiz. Konfesioaren prozedura zaharra diskurtso zientifikoaren erregelatar moldatu zen sexuaren inguruko benetako diskurtsoak ekoitziz, uste zabalaren kontra, XVIII. mendeko gizarteak, sexuaren inguruko guztia ezkutatu beharrean sexuaz asko hitz egin zuelako eta sexuaren inguruko egia erregulatua formulatzen saiatu zelako (Foucault, 2006b: 73).

XVIII. mendeko gizarteek sexualitatearen zilegitasunaren eta zilegitasunik ezaren arteko limiteak ezartzen badituzte ere, XIX. mendeko gizarte burgesa perbertsioaren gizartea bilakatzen da. Gizarte modernoa perbertsoa da zuzenean eta benetan (Foucault, 2006b: 48-49). Foucault-en ustez, Modernitateko gizarte industrialek ez zioten sexuaren errepresioari bidea zabaldu, sexualitate heretikoen eztan-dari baizik. Ondorioz, XIX. mendean ere sexuaz hitz egingo da, baina bi erregist-roetara murrizturik: ugalketara eta arautegi zientifiko orokor batean oinarrituriko biologia eta erregela ezberdinei obeditzen zien medikuntzara (Foucault, 2006c: 57).

### 1.1. *Scientia sexualis*. Paradigma bio-medikoa

Motelki bada ere, eredu bio-medikoa ezartzen da gizartean, hiru oinarri nagusi dituelarik: lehenik eta behin, ikuspegi bio-medikoak gaixotasuna gizakia normaltasunetik urruntzen duen giza gorputzaren barnean gertatzen den matxura edo apurketatzat hartzen du. Gaixotasun bakoitzaren atzean kausa eta eragile den ezkutuko germenen bat omen dago, baina berau identifikatzerik badago, nonbait. Bigarrenez, gorputza eta adimena banandurik tratatu daitezke, gaixoak gorputz gaixo bat edota patologia bat aurkezten duelako eta ez gizabanako gaixoa osotasunean. Azkenik, eredu bio-medikoak espezialista medikoak agertzen ditu gaixotasunak tratatzeko eta sendatzeko gai diren aditu bakartzat.

Sexualitate okertu eta gaixoaren ikerketa, oraindik ere ikuspegi biologizistaren menpe, XIX. mendearen amaieran hasi zen Krafft-Ebing-ek idatziriko lan psikiatriko dokumentatu itzelarekin; oraingoan medikuntzaren erregelen araupean. Psikiatra alemanak 1886an idatziriko *Psychopathia sexualis* lana izan zen *aberrazio* sexualen lehen ikerketa psikiatrikoa.

Krafft-Ebing izan zen lehenengoa *sadismo* eta *masokismo* terminoak erabiltzen sendotasun zientifikoarekin (Weimberg, 2008: 23). *Sadismoa* hitza Sade-ko markesarengandik jasoko zuen, bere ustez perbertsio sexual guztietan azaltzen zen ezaugarri bat definitzeko. Sadismoa, horrenbestez, norberak bere buruari, beste batzuei edota animaliei egindako zigor fisiko zein ekintza krudelen bidez lortutako sentsazio sexual atsegingarrien esperimendazioa litzateke.

*Masokismo* terminoa, aldiz, Leopold Von Sacher-Masoch idazle austriarra-rengandik atera zuen, azken honek lanetan minaren eta sumisioaren inguruko kezka erotikoa agertzen baitzuen. Horrezkero, masokismoa sadismoaren antitesia litzateke Krafft-Ebing-en iritziz. Sadismoak indarra erabiliz mina eragin nahi duen moduan, masokistak, kontrara, besteren batek eragindako indarrak menderatua izanik pairatzea/gozatzea du helburu.

1905. urtean Sigmund Freud psikoanalista famatuak, Krafft-Ebing-i jarraituz, sadismoaren eta masokismoaren inguruko hipotesi psikoanalitikoak garatu zuen bere *Drei Abhandlungen zur Sexualtheorie* lan ospetsuan, non, behintzat hasiera batean, kilikadura sexuala barne-prozesu sorta batzuen albo-ondorioa dela aldarrikatzen duen.

Krafft-Ebing, azkenik, pertsona berarengan forma biak ager zitezkeela onar-tzen hasia bazen ere —bere gogoaren aurka—, ugalketan eta heterosexualitatean oinarrituriko ikuspegiak eraman zuen fenomeno arraro eta ezohikotzat hartzera.

Freud-ek, kontrara, sadismoa eta masokismoa entitate beraren bi forma bereizi gisa ulertzen zituen ikusirik askotan agertzen zirela pertsona berarengan.

Sadismoan, sexualitatearen grina partziala izanik, maitasun-indarraren eta suntsiketa-indarraren arteko amalgama solidoarekin topatuko ginateke. Berdin gertatzen da, Freud-ek adierazi bezala, sadismoaren antagonikoa den masokismoan ere. Azken hori barnera zuzendutako suntsiketa-indarraren eta sexualitatearen arteko amalgama bat litzateke. Ondorioz, sadismoan zein masokismoan, erotismoa nahastaturik aurkitzen da amalgama batean barnerantz edo kanporantz zuzenduriko suntsiketa-indarrekin (Freud, 1999: 110).

## 1.2. Sexualitatearen berraurkitzea. Paradigma sozio-antropologikoa

Sexualitatearen inguruko ideiak gutxika nabarmenki aldatzen hasiak dira. Gizarte tradizionaletan sexualitatea ugalketa-prozesura hertsiki lotuta bazegoen ere, gurean esteka hori apurtu egin da azkenik —behintzat, nagusiki—. Lehenago sexualitatea monogamian eta heterosexualitatean oinarrituz definitzen bazen ere, orain gero eta gehiago onartzen da mota askotako testuinguruetan orientazio eta harreman sexual anitz dagoen ideia. Ikuspegi berriari ematen zaio hasiera *eraikuntza sozialaren* perspektiba teorikoarekin batera sexualitatearen eredu biomedikoari muzin eginez. Ikuspegi berrietan kulturak biologiak determinatua egoteari uzten dio biologiatik kulturara jauzia eginez eta, nola ez, unibertsaltasunetik sexualitatearen ulermen partikularizatura. Amaiera eman nahi zaio, horrenbestez, *scientia* sexualis-ari.

Konstrukzionista sozialentzat sexualitatea ulertzea zentzuz aldatzea da, interpretazio biologikotik sozio-antropologikora jauzia egitea. Sexualitateak gizartean biologikoa izateari uzten dio, giza sexualitate aktiboa bilakaturik. Ugalketan oinarrituriko ikuspegi biologizista baztertzen da eta erreproduzioak helburu bakarra izateari uzten dio. Sexualitatea ez da, jada, ugalketaren baliokide eta, horrezkerok, gizon-emakume dualismoa ere zalantzan jartzen da.

XX. mendearen amaierako sexualitatearen antropologia berritua argia da honetan: sexualitatea sozialki asmatua da eta kulturek zentzua eta forma ematen diete jarrerari, esperientzietan eta harreman sexuak. Ondorioz, sadomasokistak erasotzaile sexualengandik bereizten ditu DSMak (*Buru-asalduearen diagnosi eta estatistika eskuliburuak*), eta azkenik, sadomasokismoaren ingurukoak diskurtso publikoan lortzen du lekuren bat. Sadomasokismoa, Gebhard-en hitzetan, ezerean gainetik jokaera sozial azpikulturala da (Weimberg, 2008: 28).

Michel Foucault-en arabera, sexualitatea ez da giza bizitzaren gertakari bat edota ezaugarri naturala, esperientziatik abiaturik eraikitako kategoria baizik, non kategoria horren jatorria, biologikoa baino gehiago, historikoa, soziala edota kulturala den. Zentzu horretan, pentsalari frantziarraren ustez, agertutako egia prozesu horretan ez da inondik inora deskubritua, produzitua baizik; eta, horrezkerok, botereari uztarturik egonik diskurtso jakin baten barneko ezagutza gisa existitzen da.

Egoera estarian dagoen oldarkortasunarekin zerikusia duela aldarrikatzen duen diskurtso zaharkituaren barneko ikuspegiak tenteltzat hartzen du Foucault-ek, sadomasokismoaren praktikak ez baitu helburu oldarkortasuna askatzea biolentziaren

bidez. Aipatu autorearentzat agerikoa da, behintzat sadomasokismoaren barnean mugitzen denarentzat, maitale sadomasokisten praktketan ez dagoela inolako oldarkortasunik, biolentzia egon badaiteke ere. Sadomasokismoa, gauzak horrela, askoz gehiago da; plazera lortzeko zein emateko aukera berrien asmatzea eta ahalbidetzea da. Sadomasokismoak berrikuntza esan nahi du, beraz; antzezlanaren bada. Harreman sadomasokistaren batean paperak aldatzen ez badira ere, bakoitzak bereari tinko heltzen badio ere, harreman horren barneko parte-hartzaile guztiek dakite, ederki ere, joko edo antzezlan bat baino ez dela.

Zentzu berean, Weimberg-ek aldarrikatu zuen harreman sadomasokistaren malgutasuna eta aldakortasuna. Weimberg-en aburuz, mundu sadomasokistan bi ezaugarri nagusi nabarmentzen dira nahitaez: alde batetik, harreman sadomasokistaren zati handi bat testuinguru azpikultural baten barruan gertatzen da; eta, bestetik, antolakuntza soziala den harreman sadomasokista fantasiatzko testuinguru batean sartzen da, produkzio teatrala balitz bezala (Weimberg, 2008: 124). Goffman-en terminologia erabiliz, Weimberg-ek sadomasokismoa marko teatralaren barnean kokatzen du, non parte-hartzaileek kodifikazio mota ezberdinak erabiltzen dituzten, zeren eta ezinezkoa litzateke azpikultura sadomasokistara hurbiltzen saiatzea mundu horretan fantasiak eta antzerkiak duten garrantzia eza-gutu barik; antzerkia marko sozial mota baten adibide delako (Weimberg, 2008: 131).

Autore askok harreman sadomasokistan minak duen garrantzia nabarmendu nahi izan badute ere, Weimberg-ek ez du uste harreman horretan parte hartzen dutenek mina ezinbestekotzat hartzen dutenik. Mina ez da, inondik inora, unibert-sala harreman sadomasokista sexualetan eta ematen den gehienetan badirudi nahiko mugatua dela. Sadomasokismoaren esentzia ez da minean aurkitzen, kontrolaren ideian baizik; benetan garrantzitsua dena jokaera edota eszena da, testuingurua (Weimberg, 2008: 295).

Gebhard, Weimberg eta azalpen soziologikoa ematen duten beste askoren teoriei jarraituz, Chancer-ek harreman sadomasokistetan esleitzen diren rola esentzialismoak edota biologiak determinaturik egotea ukatzen du sutzuki, haren ustez parte-hartzaile gehienek rola aldatzea nahiko luketelako. Chancer-en ustez, sadikoek eta masokistek, sexua baino gehiago, aitortpena bilatzen dute; ziur asko, mundu erotikotik kanpo sortu den beharren bat asetzeko (Chancer, Nieto-k aipatua, 2003: 277).

Harreman sadomasokistan erlazio hierarkikoa ezartzen da nahitaez, horretarako sadikoak zigorraz baliatu behar badu ere. Horrexegatik, zigorrak helburu jakin bat du harreman sadomasokistan: kontrola mantentzea. Sadikoak zigorraren mehatxuarekin beldurtu behar du masokista, harreman sinbolikoa apur ez dadin. Baina, itxuraz sadikoa bere estatusetan sendo mantentzen dela badirudi ere, benetan beldur dena berau da. Chancer-ek esan bezala, sadikoaren jarrera gezurra da eta itxurak egitera beharturik dago ezin baitu bere sakontasunean gordeta duen sekretua agerian utzi, benetan masokistaren beharra duela. Ondorioz, sadikoak etengabe berriztatu eta oxigenatu beharko du harremana betiere bere menpeko den masokista izan dezan, menpekoa desagertzean sadikoa bera ere hilko litzatekeelako besterik aurkituko ez balu (Chancer, Nieto-k aipatua, 2003: 280).

Chancer-en ustetan, itxurakeriaren atzean ezkututzen da bien sekretu handia: sadikoak ezin du onartu benetan behar duela masokista, eta, kontrara, masokistak ezin du onartu benetan ez duela sadikoaren beharrik (Chancer, Nieto-k aipatua, 2003: 288). Sadikoa da benetan masokista dena, masokistak, era berean, sadiko bihurtzeko aukera duelarik. Jada ez daude sadikoak eta masokistak, gizaki sadomasokistak baizik, bata zein bestea izan daitezkeenak —edo biak aldi berean—.

## 2. Matrize sadomasokista

Aurreko kapituluan, sadomasokismo sexualaren inguruko diskurtso modernoaren deskribapenean, eten bat eta bi paradigma —edo diskurtso-talde— bereizten genituen bezala, errealitatea eraikin soziala dela pentsatzen dugun neurrian, Mendebaldeko gizarteetako harreman sozialak azal dezakeen matrize bat eraikiko dugu —tresna analitiko bat; deskripzio-preskipzio jokoan, gizartea deskribatzeko bestelako ikuspegi bat—: matrize sadomasokista.

Matrize sadomasokista bat eraikitzeak ez du esan nahi, inondik inora, sadomasokismo sexualaren inguruko matrize edo ikuspegi berriren bat eskaini nahi dugunik, sadomasokismo sexualaren inguruko matrize birekin zentzuren batean analogoak diren bestelako matrize sozio-psikologiko bi eraikiko ditugula baizik; Mendebaldeko gizartearen inguruko matrizeak, zeintzuek sadomasokismo sexualaren inguruko matrizeekin antzekotasun ugari gordetzen dituzten.

Sadomasokismo sexualak gure gizartean gertatzen diren menderakuntza-harremanak fantasiaz hornitzen dituen bezala, uste dugu, horrezkero, badagoela modu paraleloan Mendebaldeko gizarte-bizitza botere-harremanen ekonomia sadomasokistaz hitz egiterik. Sadomasokismo sexualean eta Mendebaldeko gizarteetan gertatzen diren botere-harremanen artean paralelismoa egon daitekeela iruditzen zaigu; beste modu batean esanda, uste dugu Mendebaldeko gizartean matrize sadomasokista batek biltzen dituela botere-harreman mota guztiak, non matrize sadomasokista horrek sekulako antzekotasunak dituen sadomasokismo sexualean gertatzen diren botere-harreman motekin.

Horixe da, hain zuzen, matrize sadomasokistarekin adierazi nahi duguna hemen: analogia bat, praktika sexual sadomasokistek zein Mendebaldeko gizarteetako botere-harremanek bide paraleloak egin dituztela Modernitatean zehar gaur egunera arte; logika berari obeditu izan diotela. Matrize sadomasokista Mendebaldeko gizarteetako botere-harremanak deskribitzeko eraikin kontzeptuala da, beraz.

Orain, atarikoan ikusi bezala, sexualitatearen inguruan bi matrize sadomasokista bereizi ditugun modu berean, bereizi beharko ditugu Mendebaldeko gizarteetako botere-harremanetan ere bi matrize ezberdin. Hau da, sadomasokismo sexualaren inguruko diskurtsoak bi matrize edo paradigma ezberdinen inguruan eratuak izan ziren eta modu analogoan defendatzen dugu hemen perfiatuko dugun Mendebaldeko botere-harremanen inguruko matrize sadomasokistan ere eten bat eta bi garai bereizi antzeman daitezkeela; eta, ondorioz, bi matrize sadomasokista ezberdinez arituko garela: *moderno*a eta *hipermoderno*a.

## 2.1. Matrize sadomasokista modernoa: sadomasokismo dialektikoa

Mendebaldeko kultura modernoko zenbait kontzeptu oinarritzok beren jatorria Grezia klasikoan duten bezala, Hegel-ek pentsatzen zuen gizakiaren askatasunaren kontzientzia lehenengoz greziarren artean sortu dela, bertan aurkitzen bai-tira lehenengo gizaki askeak. Baina, erromatarrek ondoren egin zuten bezala, greziarrek pentsatzen zuten gizaki batzuk baino ez zirela askeak. Hegel-en aburuz, Platon eta Aristoteles oker zeuden, zentzu horretan, beraien ustez esklaboak berezkoa zuelako morrontza eta, horrezkero, amaiera arte jarraitu behar zuelako morrontzan. Hegel-en aburuz, kontrara, gizakia nagusi zein morroi bilakatzen da lehendabiziko norgehiagokaren ondoren, bizitza arriskatzera ausartu izanaren edo ez izanaren ondoren. Hegel-en pentsamendua bilakatuko da, beraz, botere-harreman modernoan oinarri.

Gizakiak, horrenbestez, elkarren aurka aritzen dira betiere ospea eta ohorea lortzearen eta, horrexegatik, liskarrak hildako batekin edo birekin amaitu beharko balu ere, biek amaitu behar dute azkenik bizirik galtzaileak irabazlearen ohorea errekonozitu dezan; bestea hilko balitz, ez legoke inor irabazleari merezi duen ohorea errekonozitzeko. Historiak aurrera egin dezan biek jarraitu behar dute bizirik, norgehiagokaren osteko menderakuntza-harreman bati loturik non menderatzailea den nagusiak morrontza-lan jakinen bat ezartzen dion galtzaileari honek horrela onar dezan.

Hegel-en ustetan, *Phänomenologie des Geistes* lan handiari jarraituz, heltzen da une bat non kontzientzia bat hasten den ulertzen bera baino haratago zer edo zer gehiago dagoela. Kontzientziak haratago dagoen oro *gauzat* hartuko du kontzientziak. Kontzientziaren lehenengo ezagutza gauzarena da, eta berau bere aurkako zerbait dela ulertzen du. Hauxe da, filosofoaren aburuz, kontzientziak munduarekin lotzeko duen modurik simple eta funtsezkoena. Bestalde, gauza ulertzen hasten den unean konturatzen da bera ere existitzen dela, bere burua ikertzen eta ezagutzen ikusten duen unetik aurrera: ni berdin ni; hau da, autokontzientzia (Gadamer, 2005: 74).

Orain, autokontzientzia batek askatasuna eskuratu dezan eta egia bere barnean aurkitu ahal izateko, kanpoan dagoen beste autokontzientzia desagerrarazi beharrean dago. Egia ager dadin, borrokatu beharko dute elkarren aurka bestearen suntsipena dutelarik xede. Kanpoan den beste esentzia hori akatuz gero, bere burua esentziatza hartuko du eta, bestetik, bere burua gainditzeko joera du, beste hori berau baita (Hegel, 2007: 114). Beste autokontzientzia batekin duen erlazioa suntsikorra agertzen da oso, ezin baitu egia aurkitu eta bere burua gainditu beste autokontzientzia hori suntsitu arte. Elkar desagerrarazi nahi dute, beraz —behintzat, itxura batean—.

Baina, elkarren aurka azaltzen direnean gauza batez konturatzen dira, bestea desagertzeko momentuan bakardadean geratuko litzakeela, bere meritua errekonozitu dezakeenik ez legokeela, eta autokontzientzia orok nahi du bere askatasuna eskuratzeko egin duen sakrifizioaren meritua errekonozitua izatea. Paradoxa agertzen da: eliminatu nahi duenaren biziraupena bilatzen du, azkenik, baina betiere borrokatzeari utzi gabe. Inork hil behar ez duen borroka hasten dute orduan, heriotzarik gabeko etengabeko liskarra.



Kontzientzia biek ez dute berdin jokatzeko bestearen aurkako norgehiagokan, ez dute izaera bera. Esperientzia honen bidez, autokontzientzia puru bat eta beste batentzat bizi den eta autonomia ez den kontzientzia bat bereizten dira. Kontzientzia independenteak beragan du esentzia, berarentzat baino ez du bizi behar; besteak, kontzientzia dependenteak, aldiz, beste batengan du esentzia, beste batentzat bizi da. Lehenengo kontzientzia *nagusiarena* da, eta bigarrena, dependentea, *morroiarena* (Hegel, 2007: 114). Nagusiarenak, bere burua baino ez du behar izateko, eta horrezkero bakardadea bilatzen du beste autokontzientzia suntsituz azkenik libre eta benetan independentea izateko. Besteak, morroiarenak, beldurra du hezurretan; ez da bakarrik egotera ausartzen eta besteak kontserbatu nahi ditu bizirik; dependentea nahi du izan.

Baina, Hegel-en ustez, uneren batean kontzientzia nagusia morroia den bestearen beharraz ohartzen da. Nagusiak erakusten du uneren batean bere errealtate esentziala inbertitua dela; jada, konturatzen da ezin duela beste kontzientzia hori suntsitu eta haren beharra duela aitortpena lortzeko. Behin kontzientzia nagusiak bere dependentsia onartzen duenean, nagusia izateari uzten dio alde-rantzketara gauzatzeko ateak zabalduz. Hel daiteke momentu hori non nagusia morroi bilakatzen den eta alderantziz; izan ere, morroia paperak aldatzeko uneren zain egongo da-eta. Morroia ere bilakatuko da, nagusiari gertatu bezala, badenaren aurkako. Hegel-en aburuz, morroiak bere baitan bilatu behar du barnea eraldatuz benetan autonomia bilakatu ahal izateko. Nagusia harriturik dago bere lekuan, bere burua gainditu, aldatu edo garatu ezinik; lortu du bilatzen zuena, menderatzaile bilakatzea, baina ezin liteke haratago joan. Morroiak, kontrara, ez zuen morroi izan nahi eta halabeharrez etorri zaio gainera bizitza arriskatu nahi izan ez duelako, baina aldatzeko potentzialtasun handia du bere baitan (Kojève, 2006: 27).

Egoera honetan, nagusia bere garaipenaren gozatzean bere baitan ixten da, eta morroiak, aldiz, gutxika ikasten du badagoela egoera horretatik ateratzeko modurik eta uneren zain geratuko da. Nagusiak bere horretan mantendu nahi baldin badu ere dena, morroiak badena izateari utzi nahi dio. Gauzak horrela, morroiak lanean jarraitu dezake bere askatasunaren bidea perfektionatuz, azkenik, uneren batean herritar askea izatea lortu arte. Nagusiak, bere aldetik, kale egin du bere saiakeran lortu duen aitortpena morroiarena baita, gauza batena, animalia batena. Nagusiak baliorik ez duen aitortpena lortu du. Ez da beste gizaki batek errekonozitua.

Nagusia den autokontzientzia ez da inondik inora benetako gizakia, etapa bat baizik, ez baitu ezagutu morrontzan egotearen ezinegona; are gehiago, ez du benetan ezagutzen mundua, morroiaren bitartez ez bada, honek ezartzen duen babes-pantailaren bidez (Kojève, 2006: 59); ondorioz, Hegel-en aburuz, morroiak baino ez du lortuko benetako gizakia bilakatzea. Morroiak ez du hasieratik ezagutzen lanak duen balio liberatzailea eta, horrezkero, morroia ez da bizi gizaki askea bezala, bere barnean askatasunaren kontzientzia badu ere. Bere gaitasun eratzailaz ohartzen denean, nagusiaren lekua hartzen du, behin baztertua denean bere buruaren jaun eta jabe bilakatuz (Butler, 2001: 53).

### 2.1.1. Sadomasokismo modernoaren psikea: neurosia eta histeria.

Modernitatearen aurretik menderatuak eta menderatzaileak egon diren arren, sadikoak eta masokistak betidanik egonik ere, Modernitatearen hasierarekin bien arteko harremanak aldaketa sakona pairatu zuen.

Aurremodernitateko sadikoak benetan disfrutatzen zuen mendekoa torturatzen, azken horiek ez baitzuten inolako zentzurik edo baliorik; mendekoa objektu hutsak ziren. Sadikoak, bestetik, eskubide guztia zuen mendekoekin nahi zuena egiteko. Menderatuak, ordea, masokistak ziren —minarekin gozatzen ez zuten arren—, patuari baino ez baitzioten obeditzen, gauzak estoikoki hartzen baitzi-tuzten. Masokista honek mina behar du baina ez gozatzeko, bizirik jarraitzen duela jakiteko bazik. Aurremodernitatean, ondorioz, ez dago sadiko eta masokisten arteko dependentzia psikologikorik.

Aurremodernitatean tituluek sadikoa betierekotzen bazuten ere —neurri berean, masokista beti da masokista—, Berdintasunaren aldarri modernoaren agerpena-rekin bai batzuek eta bai besteek ulertzen dute azkenik ez duela zertan izan betiko: *Zergatik sufritu behar dugu betiko beste horiek modu ezin hobean bizi direnean?*

Gizakiak barnean indar asko eta askotarikoak dituela jakinik ere, Modernitatean Ni-a pertsonarekin identifikatzen da, ezagutu eta konkistatu behar den unitate edo osotasun batekin. Gizaki modernoak bere burua ezagutu behar du eta, nola ez, konkistatu. Gauzak horrela, psike modernoak autonomia eta autokontrolaren inguruan biratzen du; Modernitateak kontzientzien modernizazio eta ilustrazioa zabaldu zuen, hausnarketa, euspina eta zuhurtzia. Beste modu batean esanda, Modernitatearen etorrerarekin psikismo mota berria duen gizaki mota berria agertzen da: gizaki modernoa.

Autonomia eta arrazionaltasuna oinarri dituen Modernitatean konturatzen hasi-ko da menderatua berak ere eskubide osoa duela menderatzaile izateko, titulurik ez badauka ere. Paradigma kultural modernoa nagusi izanik ere, bakarra ez den neurrian, badira, noski, beren buruaren aurka egiten duten lehenagoko masokistak ere; baina, jada, menderatuak ulertu du ez duela zertan paturik jarraitu eta ez diola zertan bere buruari bere gaitzen errua leporatu. Honezkerok, menderatu moder-noak aurre egingo dio menderatzaileari egoerari buelta emateko helburuarekin; eta ahal izanez gero, berau menderatzaile bilakatzeko. Modernitatean bai mende-ratzaileek bai menderatuek ulertzen dute paperak alda daitezkeela. Modernitateak masokisten iraultza eta matxinadak ezagutu ditu; eta nola ez, zenbaitetan, rol-aldaketak ere.

Modernitatean lehenagoko menderatzaile eta menderatuen arteko botere-harremanak itxuraldatu egiten dira guztiz, bi ezaugarri nagusi nabarmentzen direlarik: alde batetik, menderatuen eta menderatzaileen artean lotura estua sortzen da, nolabaiteko harreman sinbiotikoa non sadikoak menderatuak behar dituen sadiko izateko, eta masokistak menderatzailea. Elkarren menpekoak dira orain, ez bata ez besteak onartu nahi ez badu ere. Bestetik, menderatzaileek eta menderatuek paperak alda ditzaketela badakite. Lehenagoko menderakuntza mailaketa mugigaitza eta onartua bazen ere, Modernitatean, hierarkizazioari buelta eman diezaioketela ulertzen dute gizabanakoek. Rolak alda daitezkeenez gero,

harreman sadomasokista are malguagoa bilakatzen da, baina, modu batean edo bestean, errolak aldatzen badira ere, matrizeak bere horretan jarraitzen du, itxuraldatua izanik ere, betiere menderatzaileak eta menderatuak agertzen zaizkigulako.

Gauzak horrela, Modernitatea heterogeneoa eta plurala izanik ere, uste dugu nagusiki bi psikismo bereizi agertzen direla —hauek biak ere heterogenoak direlarik—, balio modernoak hegemonikoak izan diren garaian gizateriaren gehiengoak jarraitu izan badu ere psikismo aurremodernoari jarraitzen: gizabanako moderno *neurotikoa* eta moderno *histerikoa*.

### 2.1.2. Gizaki moderno neurotikoa

Burgesiak askatasunaren ilusioan oinarrituriko ohiturak sendotzeko mekanismo berriak eratu zituen. Gizabanakoak modelatzeko mekanismo berri hauen bitartez gizarteak onartzen duen jokaera automatismo bilakatzea bilatzen da, horrela, gizabanakoak inposatu izan zaion jokaera gizabanako beraren kontzientziak halaxe desiratu nahi izan balu bezala sentitu behar du; gizarteak eskatzen dion jokaera jakin bat izan behar du gizabanakoak, baina betiere, bere bulkada baten ondorio izango balitz bezala. Modernitatea ez da, beraz, askatasunaren eta autonomiaren garaia, menderakuntza eta lotura psikologikoa baizik.

Kontzientzia morroiak, Modernitateko gizaki *masokistak*, koldarkeriak eta alferkeriak mugiarazten dutenez eta bizitza arriskuan jarri nahi ez duenez, bilatuko du babesa azkenean unibertso sinboliko bera duen masaren loturetan, horren sakontasunean birrinezinak diren irrika kontserbatzaileak aurkituko ditu-eta. Modernitateko gizaki masokistak bere barneko ezinegona baretu ezinik nahiago du autokontzientzia nagusi baten mende egon, nagusia masa gisa edota gizabanako nagusiaren itxura har dezakeelarik. Zer edo zeren menpe baino ezin du baretu masokistak bere ezinegona. Neurotiko gisa, ezkutatu behar du paradisu idealen batean, horretarako askatasunari uko egin behar badio ere.

Gauza bera gertatzen zaio *sadikoa* den gizaki neurotikoari, honek ere ez baitu harremana apurtu nahi, honek ere ez duelako librea izan nahi, menderatuak behar dituelako bere boterea eta indarra legitimoa izan dadin. Sadikoak ere, autoritatea den neurrian, menderatzailearena egin arren, masaren edo komunitatearen beharra du, masokistarik ez balego, ez legokeelako sadikorik —menderakuntzak subjektu aktiboak zein pasiboak behar ditu—. Sadikoak, bere boterearen bitartez, menderakuntza-harremana egonkorra egiten duten lotura psikologikoak garatu behar ditu nahiatez, harremana legitimoa bihurtu; lotura psikologikoa ezinbestekoa da autoritatea egoteko.

Mendebaldeko kulturaren zibilizazioaren ibilbidearen azterketa sakonean esango du Elias-ek argi ikus daitekeela zelan armen mehatxuekin zein gerraren indarraz eragindako bortxaketa eta derrigortzea gutxika murriztuz doala, dependentzia moduak sendotuz doazen neurrian. Aldaketa horrek autoheziketaren mende dagoen bizitza afektiboaren arautzera edo administraziora eramaten du gizabanakoa; autoderrigortzearen formapean, *self-control* pean, azken batean (Elias, 1993: 225).

### 2.1.3. Gizaki moderno histerikoa

Lehenago ikusi bezala, psikearen ideal modernoak autonomia eta auto-kontrolaren inguruan biratzen zuen; autonomiaren inguruan subjektu modernoak autonomia pertsonala zuelako xede, bere burua ezagutu eta bere buruaren jaun eta jabe bilakatzea; eta, autokontrolaren inguruan subjektu modernoak gero eta gehiago behar zuelako bere burua mende hartzea —autodomeinua— nahitaez bizi behar baitzuen besteekin batera, gizarte-harremanetan —zenbat eta jende gehiago inguruan, gizabanakoak gero eta gehiago behar du bere burua kontrolean mantendu—. Modernitatean, beraz, autonomia eta autokontrola elkarrekin doaz nahitaez, beraiei esker baino ezin da agertu modernitateko *self-a*, subjektua —non, *self-a*, esan bezala, nor bere burua ezagutzea, balio bat ematea, eraikitzea eta aurkeztea den; baina, prozesu horiek guztiak gauzatzeko nahitaezkoak dira elkarrekintzak eta harreman-sareak, horien bidez baino ez ditugu lortuko behar ditugun ereduak (Apodaka, 2004: 64)—.

Beste modu batean esanda, filosofia modernoa Ni-aren edo subjektuaren filosofia den neurrian, bi prozesuk eragiten dute subjektu modernoarengan. Alde batetik, sozializazioarekin subjektu sozializatua eratzen den moduan, bestetik, subjektibizazioarekin subjektu autonomia eratzen da (nahi da). Eduardo Apodakaren hitzetan, «Gizarte Zientziak bi kontzepzio(hori)en artean kulunkatu dira» (2004: 83). Orain, eredu modernoa hori bazen ere, Modernitateak subjektu sozializatu eta autonomoak ekoiztea xede izanik ere, lehenago ikusi bezala, sadomasokista neurotikoak ekoitzi ditu gehienbat eta, bereziki, sozializazio hertsian ekoizitako masa-gizakia. Eta, zer gertatu da subjektibazio modernoarekin?

Bigarren maila batean geratu da ezinbestean, gehiegizko sozializazioak subjektu modernoa askatu baino alienatzen amaitu baitzuen kasu gehienetan —eta, hala eta guztiz ere, lehen esan dugun bezala, Modernitatea Ni-aren edo subjektuaren filosofia gisa agertu ohi zaigu; edo, beste modu batean esanda, *self made man* edo bere burua eraiki duen gizakia ekoiztea xede izan duela aldarrikatzen du diskurtso modernoak, benetan subjektibazioa ilusioa izan denean kasu gehienetan—.

Modernitatean gizarte-sareak ugaritu eta handitu egiten diren neurrian, pertsonen arteko koakzioak autokoakzio eta autokontrol bilakatzen dira gutxika. Indibidualizazioa gertatzen bada ere Modernitatean, paradoxikoki, sistema sozialak homogeneizatorako joera izan zuen, aparteko psikeen aurka. Hala eta guztiz ere, Modernitatean subjektu moderno errepresore eta neurotikoaren ekoizpena ezagutu bada ere, Sloterdijk-ek aldarrikatu bezala, homogeneizazioari uko egin nahi zion subjektu moderno autoespresibo eta histerikoa ere ezagutu izan da; Modernitatean ere izan dira energia aktiboa ukatu edo ezkutatu beharrean kanporatzerantz animatu zuten pentsalariak, Fichte, Nietzsche edota Bergson adibiderako. Eroak edota kriminalak.

*Eroa* den Modernitateko gizaki histerikoa gizartearen etsai(heroi) —eroak balio bikoitza du, batzuentzat etsai gisa agertzen bada ere, beste askorentzat heroi gisa agertzen delako maiz— bilakatzen da ezberdina izateko nahi hutsagatik, gizarteak arriskutzat hartzen duelako eta espiritu askeak gizartearengan ikusten duelako

bere askatasuna gauzatzeko oztoporik handiena eta arriskutsuena. Artaldeko animalia neurotikoak ez bezala, gizaki histerikoak ez du kanpotik gizarteak ezarritako maskara jantzi nahi, une bakoitzean egoki ikusten duena baizik.

*Lege* berrien bilaketan dabilzan gizabanakoei eromena baino ez zaie geratzen, beraz, ero bilakatu edo erotzat agertzea gizartearen aurrean (Desiato, 1998: 123).

## **2.2. Matrize sadomasokista hipermodernoa. Sadomasokismo ez-dialektikoa**

Hegel-ekin psikologikoki zein politikoki beste mundu batera salto egin zuen Modernitateak, eta Nietzsche-k, Mendebaldeko metafisika tradizionalari egindako kritikarekin, salto berri bat egiteko oinarriak jarri zituen. Bere garaiak salto psikologiko berririk ezagutu ez bazuen ere, mende erdi bat geroago agertzen hasi ziren, motelki eta zalaparta handirik gabe, ikuspegi berriak zituzten mailuaren filosofoaren jarraitzaile gutxi batzuk; eta, horien ostean, postmodernoa zein hipermodernoa den garai berriaren etorrera aldarrikatzen zuten kimu nietzschetar berantiarak. Gauzak horrela, matrize modernoak Hegel-en pentsamendua bazuen ere oinarri, matrize hipermodernoa Nietzsche-rena izango du.

Nietzsche-k Hegel-en dialektika gairitu nahi du, azken hori esklaboek marrazturiko teatroa baino ez delako, benetako eraldaketarik bilatzen ez duen esklaboaren gidoia delako, non nagusia omen den menderatzailea menderatua bezain esklaboa den. Gizabanakoen artean adoretuenak ere gutxitan du benetan dakienari aurre egiteko adore nahikoa (Nietzsche, 1999: 39), eta, gauzak horrela, menderatzaileak ez du onartu nahi benetan menderatuaren beharra duela, menderatuak menderatzailearen beharra duela onartzen ez duen bezala; baina ez hori bakarrik, egia hegeliarraz gain Nietzsche-k nabarmentzen du biengan benetan onartu nahi ez duten beste sentimendu bat ere badela —sekretu handia—, ez bata ez besteak ez duela bestearen beharrik eta adorea baliaturik barnean badutela menderakuntzarekin amaitzeko indar nahikoa.

Hegel-en dialektikan, azken batean, menderatzaile sadikoa menderatu masokista bezain esklaboa da, Nietzsche-ren aburuz, izan ere biek dute oztopoen aurrean erreakzionatzeko gai ez den botere-nahi ahul bat, eta botere-nahi ahul oro da degenerazio formaren bat (Nietzsche, 1999: 64). Menderatuak nagusiarekiko mendekotasuna agertzen duen bezala koldarkeriak bultzaturik, nagusiak ere nolabaiteko mendekotasuna agertzen du, ezkutukoa bada ere, menderatzailearen beharra duenez gero, esklaboarengandik askatzearen ideia hutsak beldurtzen duelarik. Gauzak horrela, Nietzsche-rentzat esklabo eta nagusi hegeliarrik ahulak eta dekadenteak dira neurri berean, esklaboak edo erreaktiboak, zentzu nietzschetarrean.

Modernitateko gizakien artean gehiengo nagusi edo esklaboa da, esklabo(erreaktibo)ak azken batean, den-denek baitute gauza bakar bat buruan: biziraupena. Esklaboak edozer gauza egingo du nagusiak bere bizitzarekin amaitu ez dezan, horretarako sumisioetan lotsagarriena ere pairatu behar badu. Zentzu berean, sadikoak badaki bizirauteko esklaboaren beharra duela, esklaborik gabe harremana bukatuko litzatekeelako, eta harremanarekin bizitza. Hala ere, gizateriaren gehiengoak biziraupena bilatzearen arrazoia edo kausa ezin dugu espeziearen biziraupenean kokatu, hasieratik inprimatua izan zaion artalde-

senean baizik. Horren sakon du gizaki orok sen hori non gure espeziaren esentzia ere bilakatu den.

Ondorioz, esklaboak diren gizakiek edozer gauza egingo dute bizirauteko; berdin du gorrotatu, menderatu zein menderatua izan horrek guztiarekin irauten badu bizirik. Horrenbeste erotu du sen horrek gizakia non gainerako animalien gainetik biziraun nahi duen animalia alditsu eta fantastikoa bilakatzerara heldu den. Modernitateko gizaki esklabo eta dekadenteak ez du oraindik ulertu bizitzaren arrazoiarenganako fedea zentzugabea dela eta espeziearen garapenean oztopo bat dela (Nietzsche, 1998: 31-33). Gauzak horrela, Nietzsche-ren iritziz, gizakiaren historia nihilistan esklaboak izan dira nagusi, barne-indarren arteko borrokan indar zentripeto eta errektiboak nagusi dituzten gizakiak, botere-nahi ahula duten gizakiak; menderatu zein menderatzaile izan, boterea izan edo ez, botere-nahi ahuldun gizakia beti da esklabo. Nihilismoa garaile ateratzen denean botere-nahiak sortu nahi izateari uko egiten dio menderakuntza hutsa bilatzeko (Deleuze, 2000: 33-35).

Modernitateko matrize sadomasokistak, Hegel-en dialektikaren eraginpean, menderatzailea edo nagusia sadikoarekin eta menderatu edo esklaboa masokistarekin berdintzen bazituen ere, Nietzsche-k ikuspegi berria agertzen digu. Mailuaren filosofoarentzat, gorputza askotariko fenomeno da, hainbat indarrek osaturik baitago; eta, gizaki oro denetik indar-aniztasun bat gizaki orok botere-nahi bat du, barneko indarrek determinaturiko botere-nahia. Baina, gizaki guztien botere-nahia ez da berdina izango, barne-indarrak berdinak ez diren neurrian. Nietzsche-k bi indar mota bereizten zituen, *aktiboak* eta *erreaktiboak*, eta, horrezkero, bi botere-nahi ezberdin, aktiboa eta erreaktiboa. Gizabanakoa aktiboa eta sortzailea izango da betiere bere botere-nahia aktiboa den neurrian, hau da, bere barne-indarren artean gehiengoa aktiboa denean; kontrara, gizabanakoa ahula eta erreaktiboa izango da bere botere-nahia erreaktiboa denean, bere barne-indarren artean gehiengoa erreaktiboa eta zentripettoa denean, barnerantz zuzentzen denean, indar erreaktiboak aktiboei gailentzen zaizkienean.

Nietzsche-k esklabo izendatu zuen hori gizaki erreaktiboa da, esklaboen moral-duna izanik bere baitan artaldearen kontserbazio-sena nagusi duen gizaki ahula; eta horrezkero, ez dago gizaki erreaktiboa edo esklaboa eta masokista edo menderatua berdintzerik —Hegel-en pentsamenduan oinarrituriko matrize modernoak bereizten zituen esklabo-menderatu-masokistak eta, bestetik, nagusi-menderatzaile-sadikoak—. Esklaboaren ezaugarri nabarmena, Nietzsche-ren aburuz, indar aktiboen murrizketarekin batera nagusitzen den erresuminez blaituriko mina da. Indar erreaktiboak gailentzerakoan botere-nahia mendeku-nahi bilakatzen da, menderatzaile zein menderatuaren formapean bada ere.

Hala ere, kuantitatiboki askoz murriztagoa izanik ere, historian holakorik aurkitzea zaila bada ere, bada esklaboaz gain beste gizaki mota bat, lehenago esan bezala. Jaun moraldunak edo gizaki aktiboak, esklaboak ez bezala, barne-indar erreaktiboak neutralizaturik ditu botere-nahia aktibo bilakatzen delarik. Indar erreaktiboak geldirik dituen ez dira gizabanakoaren aurka zuzentzen erresuminak sorturiko mina uxatzea lortzen duelarik. Erresuminak gidatzen ez duenez botere-nahia ez da mendeku-nahia. Horrezkero, gizaki aktiboak ez du besteen

beharrik bere burua baieztatzeko, ez baitu inor mendea hartu nahi horretarako, ezta inoren menpe egon nahi ere.

Laburbilduz, Hegel-entzat bi gizaki mota bazeuden ere —menderatu-esklabo-*masokistak* eta menderatzaile-nagusi-*sadikoak*—, Nietzsche-ren aburuz ez dago esklaboa (esklabo-moralduna) menderatuarekin parekatzerik, menderatzaileak ere menderatuak bezain esklabo izan daitezkeelako. Berdin-berdin bigarren berdintasunarekin. Nietzsche-rentzat ez dago jauna (jaun-moralduna) menderatzailearekin berdintzerik, menderatuak menderatzaileak bezain jaun izan baitaitezke. Beste modu batean esanda, Hegel-entzat mailaketak adierazten du nor den *sadikoa* eta nor *masoka* —menderatua beti *masokista* da, eta menderatzailea beti *sadikoa*—; Nietzsche-rentzat, ordea, titulu-mailaketak ez du adierazten zein den zein, barneko botere-nahiaren izaerak baizik —menderatu zein menderatzaile izan, *masokistak* eta *sadikoak* beti dira botere-nahia errektibodunak; botere-nahi aktibodunek, ordea, menderakuntza-harreman *sdomasokistatik* ihes egiteko bideak bilatuko dituzte—.

### 2.2.1. *Sdomasokismo hipermodernoaren psikea: gizaki sdomasokista*

Autonomian eta arrazionaltasunean oinarrituriko Modernitatean nagusi den paradigma kulturean, lehenago adierazi bezala, menderatua konturatzen da berak ere eskubide osoa duela menderatzailea izateko eta besteren bat mendea hartzeko, botere-harremana hautsi barik egoerari buelta emateko; eta, bestetik, ez bata ez besteak onartu nahi ez badute ere, biek elkar behar dutela nahitaez —*sadikoak* eta *masokistak*—. Paperak aldatzeko gaitasuna baldin badute ere, beti dira *sadiko* edo *masokista*, baina ez biak aldi berean. Gizabanakoa *masokista* gisa arituko da menderatua den neurrian, baina *sadiko* peto-petoa bilakatuko da menderatzaile izatea lortzen badu. Bestetik, matizetik at, dialektika bortizetik, aldendu nahi den espiritu liberrik ere agertzen da Modernitatean, etengabea bera fagozitatatu nahi duen *sadikoen* eta *masokisten* arteko harremanaren aurka egin behar duen gizaki aktibo eta sortzailea.

Egun, hipermoderno eta globalizatua den garai honetan, Modernitateko zenbait oinarri hankaz gora jarri izan badira ere, gizakiak jarraitzen du lehen bezala besteei loturik. Jada gizarteak, subjektuak zein kontzientziak modernizatzeko eredu amaieraren eta menderakuntza-sistema berrien aurrean topatzen gara. Berdintasunaren izenean autoritate eta hierarkia ororenganako mesfidantza da nagusi eta, ondorioz, Modernitateko adituek ez dute jada lehengo estatusa eta eragina gizartearen. Ondorioz, Modernitateko programazioko instituzioek —famiak, Elizak, etab.— lehen zuten garrantzia eta eraginkortasuna galdu dute neurri handi batean.

Oraindik ere Modernitatean bezala askeak eta autonomoak direla uste duten, baina ez diren, gizabanakoak ekoizten dira, egungo *instituzioek* holako subjektuak nahi baitituzte; baina, orain, askatasuna eta autonomia ez dago rol finko batek determinaturik, abenturak eta esperimendazioak baizik —jada ez zaio diziplinarik ezartzen subjektuari, ez da subjektu esperimendaturik behar; kontrara, motibatua eta esperimendazio berriak izateko irrikan dagoen subjektua baizik—. Bestetik, Modernitateko errelato handiek ere galdu dute beren garrantzia eta jada gizakiak

proiektu handiekiko itxaropena galdu du; egun, jainkozko planekiko zein plan naturalekiko mesfidantza nagusitu da, eta horri guztiari lehen aipaturiko autoritate eta hierarkizazioarekiko mesfidantza gehitzen badiogu, gizakia bakarrik aurkitzen da bat-batean kanpoan bestelako oinarriak aurkitu beharrekin.

Narrazio handien gainbeherarekin desertuarekin topatzen da gizakia ezinbestean, arrisku mordoaren mehatxupean. Nora ez horretan ondo ainguraturik zegoen Modernitateko gizakiak bide uzten dio fede edo oinarri bila dabilen gizaki hipermodernoari, gizaki sadomasokistari.

Globalizazioaren garai honetan inoiz baino lotuago daude gizaki guztiak, elkarren beharra inoiz baino nabariagoa da, baina ez hurbilekoaren beharra, baita munduko beste puntan dagonaren beharra ere. Egun inoiz baino argiago dago mundu osoko gizaki guztiok sare estu bat osatzen dugula eta munduko bazter batean eragindako ekintza batek eragin izan dezakeela munduko beste edozein bazterretan. Gero eta lotuago eta konektatuago dagoen mundu honetan hain dira handiak harremanak eta hauen sareak, non Ni autonomo modernoak desagertzen baita. Jada ez dago harreman horietatik ihes egiterik eta, ondorioz, Sloterdijk-ek esan bezala, Modernitateko espiritu libre edo autonomoak utzi dio bere lekua noiz, nola eta nork engainatua den erabakitzen duen gizaki soberanoari (Sloterdijk, 2007: 88).

Laburbilduz, egun ere, Modernitatean bezala, gizakiek elkar behar dute —inoiz baino argiago dago garai globalizatu honetan ez dagoela elkarmenderakuntzatik at geratzeko modurik, ez dagoela saretik kanpo egoterik; inoiz baino argiago dago elkar behar dugula denok—; eta, elkar behar dutenez gero, Hipermodernitatean ere agertuko da egoerari etekina atera nahi izango dionik, besteak mendean hartu nahi izango dituenik —eta, nola ez, menderatu izan nahi duenik ere—. Ondorioz, Hipermodernitateak ere, Modernitateak bezala, menderakuntza-harremanak eza-gutuko ditu, baina oso bestelakoak.

Harreman sadomasokistak izanik ere biak, bada zer bereizi bien artean; eta, nola ez, menderakuntza sadomasokista ezberdina den neurrian, Modernitateko zein Hipermodernitateko menderatu eta menderatzaileak ere ez dira berdinak izango. Beste modu batean esanda, harreman sadomasokista modernotik hipermodernora salto egitean, episteme zein matrizez aldatzean, gizaki modernoak bidea utzi dio bestelako gizaki mota hipermoderno eta sadomasokista bati.

Modernitateko gizaki sadikoek eta masokistek Hipermodernitateko gizaki sadomasokistari utzi diote bidea. Botere-harreman berri honen berezitasuna zera da, pertsona berean forma biak ager daitezkeela, aktiboa zein pasiboa, eta ondorioz, besteak sufriaraztean plazera jasotzen duen horrek mina pairatzeko orduan ere plazera jasotzeko gaitasuna duela; are gehiago, sufriarazten eta sufritzen duen hori pertsona bera dela. Deleuze-k argitu bezala, milaka bide asmatu daitezke egoera batetik bestera pasatzeko, eta horrezkero, edozeinek duela sadiko zein masokista izateko gaitasuna. Zentzu horretan, sufritzen eta sufriarazten plazera jasotzen duena pertsona bera da (Deleuze, 2001: 133). Gizaki sadomasokistak ulertu du ez duela zertan menderatzailea izan boterea eduki eta mina eginarazteko —menderatua izan behar ez duen bezala mina pairatzeko—; ulertu du



boterea ez duela maila batek ematen, ez dela eduki daitekeen gauza bat, gizaki guztietatik zehar bidaiatzen duena dela baizik; ulertu du jada ez dagoela lehenagoko rol finkorik, mailaketak ez duela horrenbesteko garrantzirik, eta sadiko zein masokista izan daitekeela aldi berean, agerian zein ezkutuan izan.

Gauzak horrela, matrize sadomasokista berrian, sadomasokismo sexualaren inguruko egungo diskurtso konstrukzionistak nabarmendu bezala, *malgutasuna*, *aldakortasuna* eta *ikusezintasuna* dira ezaugarri nagusiak. Beste modu batean esanda, gizaki sadomasokistak ederki ere ezagutzen ditu maskaren jokoak. Zentzu horretan, Agamben-en *edozein-a* edo *edozelakoa* litzateke egungo gizaki sadomasokista, indeterminazio hutsa ez bada ere, identitaterik ez duelako, kontzeptu jakin batek determinatua ez delako (Agamben, 2006: 57). Edozein izan daitekeen gizaki sadomasokista, horrezkero, aukera-osotasunak baino ez du determinatzen. Gizaki sadomasokista ez da, jada, inolako klaserekin identifikatzen, ez du horren beharrik nahi beste lekutan nahi bezala joka dezakeelako.

Laburbilduz, Modernitateko matrize sadomasokistan bi gizaki mota bazeuden, oldarkortasuna barneratzen zuten sadiko eta masokistak (neurotikoak) eta oldarkortasuna indar sortzaile eta berriztatzaile gisa kanporantz zuzendu nahi zuen gizakia (histerikoa), espiritu librea, matrize sadomasokista berriak ere bereiziko ditu bi gizaki ezberdin: giza sadomasokista *faltsua* eta *benetakoa*.

### 2.2.2. Gizaki sadomasokista *faltsua*

Egungo gizaki sadomasokista *faltsua* Modernitateko esklaboaren ondorengoa da, azken horrek bezala lehenengoak ere botere-nahi erreaktiboa duenez, oraindik ere fikzioetatik askatu ez delako. Gizaki *faltsuak* sortutako fikzioak sinestera ere heldu da, Richard Rorty-ren gizaki metafisikoak egiten duen bezala. Gizaki metafisikoak bezala, sadomasokista *faltsuak* uste du bere azkeneko lexikoan —gizabanakoaren bizitza narratzeko hitz multzoa, gizabanakoaren ekintzak eta sinesmenak justifikatzen dituen hitz multzoa (Rorty, 1991: 91)— agertzen den termino orok adierazten duela esentzia errealean bat. Honezkero, sadomasokista *faltsuak* ez du zalantzan jartzen azkeneko lexikoa, ezta errealitate bakar eta aldaezinaren existentzia ere. Ez du, beraz, errealitatea berridazten, deskripzio zaharren bidez analizatu baizik.

Rorty-ren gizaki metafisikoak bezala (Rorty, 1991: 115), gizaki sadomasokista *faltsuak* itxuren aniztasunaren gainetik egon nahi du, altueretatik unitatea ikusiko duelakoan, errealitatea ezagutu eta munduak sortzen dion ezinegonetik urrundu. Hala ere, ezin du ondoeza sahiestu eta sadomasokista *faltsuaren* ezinegona *zinismo* zirriborrotsu gisa agertzen zaigu orain (Sloterdijk, 2007: 37). Peter Sloterdijk-ek *Kritik der zynischen Vernunft* lanean dioen bezala, burgesia beheko eta goikoen arteko zubiak eraikitzen hasi zirenetik muturrak gero eta gehiago hurbildu dira, zinismo berriarekin gizabanakoa aldi berean biktima zein sufriarazle bilakatzen da (Sloterdijk, 2007: 39-40), gizaki sadomasokista bat; baina ez edozelako sadomasokista, *faltsua* baizik, Modernitateko gizaki honek bere sintoma depresibo guztiak kontrolpean mantenduz erreaktibo bilakatzen delako, metafisikoa, kontserbazio-senak oraindik ere gauzek modu jakin batean izan behar dutela sinestera eramaten baitu; oraindik ere obedientzia-mekanismoen menpekoea baita.

Sadomasokista faltsuak oso ondo ikasi ditu ikusezintasunaren trikimailuak, inor ez izatearen artea. Zentzu horretan, esan daiteke gizaki sadomasokista faltsua agente bikoitza dela, batean zein bestean egiten duela lan betiere interesen bat duenean, une bakoitzean egoera bakoitzak eskaintzen dion aukera aprobetxatuz; eta, nola ez, zinikoa ere bada, zentzu arruntenean, haren ekintzak ez duelako diskurtsoarekin bat egiten. Egungo sistemaren zerbitzariak eskuinarekin egin dezake ezkerrek sekula utzi ez diona; lanbidez hurrupatzaile eta aisialdian esplotatua. Horrezkeru, oso zaila da jakitea zinikoa zein lekutan dagoen (Sloterdijk, 2007: 192-193).

Jada ez dago zertan sadikoa izan boterea izateko, menderatu- zein pairatzaile-egoeratik ere sadikoak bezala erresuminari irtenbidea eman diezaiokeelako. Sadi-koak ere ulertu du itxurak egin behar dituela, autoritate ororekiko zabaldu den mesfidantzagatik, eta hobe dela menderatu gisa agertzea boterea behar bezala erabili nahi badu. Goiak eta beheak ez dute Modernitatean zuten garrantzia, horrezkeru. Baina, kontrara, Modernitateko mailek beren garrantzia galdu badute ere, Modernitatean ere ezaguna zen eta bertatik datorren ikusezintasuna areagotu egin da.

Gaur egungo biktimismoa bilakatu da botere-iturri nagusia, sadomaoskista faltsuaren forma boteretsuena. Biktima ugari izanik ere, guzti-guztiek ez dute lortuko biktimaren estatusa eta, ondorioz, estatusa lortzen ez dutenak aitortuak ez diren neurrian, haien mina ezin da egia izan. Kontrara, biktimismoaren atzean ezkutaturik, estatusa lortzen duten biktimen mina egia bilakatzen da, egia santua; eta, ondorioz, sufritu izan dutenez gero, eskubidea osoa bermatzen zaie justizia egiteko. Menderatua omen denak, horrezkeru, biktima den neurrian, ezkutuko sadikoa bilakatzea lortzen du: egia, boterea eta kontrola. Nork leporatu diezaioke ezer sufritu duen biktima bati?

### 2.2.3. *Gizaki sadomasokista egiazkoa*

Sloterdijk-ek *zinismoa* eta *kinismoa* aurrez aurre jarri dituen bezalaxe jarri behar ditugu hemen ere sadomasokista *faltsua* eta *egiazkoa* bata bestearen aurrean; edo beste modu batean esanda, barne-indarrak errektiboak dituen eta barnerantz begiratzen duen gizaki inflexiboa eta barne-indarrak aktiboak dituen eta kanporantz begiratzen duen gizaki erreflexiboa nor baino nor.

Gizaki sadomasokista faltsua Modernitateko sadiko eta masokisten ondorengo zen, eta gizaki sadomasokista egiazkoa, berriz, Ilustrazioko autonomia izan nahi zuen gizakiaren ondorengo da, espiritu librearena; gizaki berri honek, bere aurrekariarekin konparatuz, elkarmenderakuntzatik ihes egiteko ezintasuna onartuz utzi dio Modernitateko askatasunarekin amesteari, askatasunaren definizio berriei bidea zabalduz. Modernitateko eroari gertatu bezala, sadomasokista egiazkoari ere gizarteak ezartzen dio sekulako presioa, mekanismo homogeneizatzaileek gero eta lotuago dagoen gizartean ezkutuan zein agerian egindako presio-lanak, sadomasokista faltsuak bere modukoa bihurtu nahi du-eta; baina, lotuta egoteari uko egin ezin badiezaioke ere, sadomasokista egiazkoak bilatuko ditu bere autonomia handitzeko bide berriak; askatasunaren aldarrikapen handiak ezerezean geratu badira ere, sadomasokista egiazkoak erabaki nahi du behintzat nork

hartzen duen mendean eta noiz. Edo, zehazkiago, maskaren artea ezagutzen duenez, elkarren mendeko harremanetan norekin, nola eta zertarako sartzen den erabakiko du. Menderakuntza-harremanez haratago, sadomasokista egiazkoak bere modukoen arteko, elkarren mendeko, harremanak sortzea du xede.

Sadomasokista faltsuak iraganarekin lotura estua zuenez gero, Rorty-ren gizaki metafisikoekin aldera zitekeen eta berdin egingo dugu sadomasokista egiazkoaren eta Rorty-ren *ironistaren* artean, biek iraganarekin apurtu eta zer edo zer berriari ekin nahi dioten neurrian. Sadomasokista egiazkoak, ironistak bezala, ez du azkeneko lexikoan sinesten, lehenik eta behin egunerokotasunean erabil-tzen duen azkeneko lexikoarekiko mesfidantza eta zalantza handiak dituelako, betiere, besteen lexikoekin topatzean ezberdintasunak ikustean, bere lexikoari batzen diolako besteen lexikoetatik hartutakoa; bestetik, jakin badaki bere lexikoaren bidez ezin dituela lexikoak berak sortzen dizkion zalantzak ebatzi; eta, azkenik, ez duelako uste bere lexikoa inorena baino hurbilago dagoela errealitatetik. Zentzu horretan, ironistak bere lexikoa aukeratzen du betiere zaharkitua dagoenari aurrez aurre zer edo zer berria jarri ahal izateko, eta inondik inora itxurak baztertu eta Egia aurkitu ahal izateko (Rorty, 1991: 91).

Sadomasokista egiazkoak ironia erabiltzen du sadomasokista faltsuak erabiltzen duen zentzuaren aurrean, zentzuaren bidez azkeneko lexikoa aldarrikatzen baita, zentzudunak azkeneko lexikoaren bitartez ekintza eta sinesmen guztiak deskribatzen eta epaitzen baititu. Sadomasokista egiazkoarentzat azkeneko lexikoa beste lexiko bat baino ez da beste askoren artean, irizpideak huskeria baitira. Sadomasokista egiazkoa ironistak saiatzen diren horretan saiatzen da: autonomian. Horrezkero, zaharkitutako herentziatik askatzen saiatzen da sadomasokista egiazkoa, propioak dituen kontingentzia berriak sortu ahal izateko; azkeneko lexiko bakar eta unitariotik askatu berea dena modelatu ahal izateko. Zentzu horretan, esan daiteke sadomasokista faltsua imitatzaile bat dela, sadomasokista egiazkoa berritzailea den bezala

Sadomasokista egiazkoak berritzailea izan nahi baldin badu, ezinbestekoa zaio arriskatzeko beldurrik ez izatea eta, lotsagabekeria. Egiazko sadomasokismoak, izan ere, berezkoa du lotsagabekeria (Sloterdijk, 2007: 175). Gizaki sadomasokista egiazkoak, ironista den neurrian, idealismoak sorturiko eta ezarritako iruzur oro nahi du agerian utzi eta, *kinikoa* den neurrian, lotsagabekeria guztiarekin kanporatuko du oldarkortasun guztia beharrezkoa denean, sadomasokista faltsuak ez bezala, egiazkoak ez duelako oldarkortasuna erreprimitu nahi, mina modu erreaktiboan bizi beharrean onartu egiten duelako.

Gauzak horrela, sadomasokista egiazkoa ez da oposizioan edo kontraesanean geratzen, ez da antagonismo hutsa, espiritu *soberanoa* da. Gizartean egun eratu den sareak menderakuntza-harremanetara behartzen badu ere, sadomasokista egiazkoak ez du bilatzen mailaketarik, ez du menderatu edo menderatzaile izan nahi. Berdinen arteko talka baino ez du bilatzen, eta ez horiek mendean hartzeko, bere burua gainditu ahal izateko baizik, berdinen arteko bestelako sare-ereduak sortu ahal izateko (Sloterdijk, 2007: 249).

Horrexegatik, sadomasokista den neurrian, menderatu zein menderatzaile izateko aukera duen arren, ez du sadomasokista faltsuak bezala bere malgutasuna erabiltzen ezkutuan besteengan eragiteko edo besteak mende hartzeko —bestea objektutzat hartzeko—. Malgutasuna berezkoa duenez, nahi beste maskara jar ditzake, unearen arabera, baina ez ezkutuan ibiltzeko, izaera *eskizofrenikoa* duelako baizik. Izaera edo maskara ezberdinetatik igarotzen bada, ez da besteak mende hartzeko, bere izaera esperimendatzaileagatik baizik, etengabe bere bizitza eraldatu eta indarberritu nahi duelako —eta bizitza eraldatzearekin batera gizartea irauli nahi du—, ez duelako betiko pertsona bera izan nahi.

Sadomasokista egiazkoa bitalismo nietzschetarraren paradoxa gauza egina da, bizitza bizitzeko nahiaren arrazoia bizitzaren gehiegikeria delako, bizitza arriskatzeko nahikoa den zer edo zer baden kontzientzia duelako; beste modu batean esanda, sadomasokista egiazkoa benetan bizirik sentitzen da bizitza arriskatu nahi duelako (Zizek, 2005: 74).

### 3. Ondorioak

Modernitatean botere-harremanak matrize sadomasokista izendatu dugun harreman-logika baten arabera eratzten dira, sexualitatearen esparruan izaten diren harremanen oinarri den matrize sadomasokista sexualaren analogoa dena, zeinaren arabera, alde batetik, harremanaren alde biek elkar behar duten, eta, bestetik, antagonikoa den besteari derrigorrez loturik egon beharra izanik ere, menderatuak ulertu duen badagoela harremanari buelta ematerik.

Gauzak horrela, matrize horren araberako gizaki mota jakin bat ekoitziko da nagusiki Modernitatean —oraindik ere gizaki aurremoderno anitz badago ere—, gizaki aurremodernoarekiko oso bestelakoa den gizaki mota. Orain, gizaki mota hori ez dago modu bakarrean definitzerik, aurpegi ezberdin asko erakutsi baititzake; eta, hala eta guztiz ere, badira botere-nahiaren arabera nabarmentzen diren bi aurpegi ezberdin nagusi.

Alde batetik, harreman sadomasokistan murgildurik eroso bizi den gizaki moderno *neurotiko* edo erreaktibo batekin topatuko ginatke, zeinak menderatutako sadomasokista edo menderatzaile-sadikoaren paperak bete ditzakeen. Bestetik, dialektika sadomasokistatik aldentzea edo askatzea bilatzen duen gizaki moderno historiko edo aktiboarekin topatuko ginatke, menderatua zein menderatzailea izateari uko egin nahi dion espiritu askea.

Hipermodernitatean, aldiz, botere-harremanak bestelako logika baten arabera dira eratuak —matrize sadomasokista hipermodernoaren arabera—; eta, ondorioz, bestelako gizaki mota bat ere ekoizten da nagusiki —Hipermodernitateak, oraindik ere, gizaki moderno asko ezagutu behar baditu ere—: gizaki sadomasokista, sadiko masokista zein biak aldi berean izan daitekeena.

Gizaki hipermoderno berriak aurreko gizaki modernoak ikusi nahi ez zuen egia ezagutzen du jada, boterea ez dela menderatzailearen jabetza bat, gorputz guztietatik bidaiatzen duena baizik eta, ondorioz, batetik, ez dela menderatzailea izan behar botereduna izateko eta, bestetik, ikusezintasunaren artea erabil dezala

keela zalantzapean egotea ekiditeko. Gizaki hipermodenoak —somasokistak— ulertu du, azkenik, ez dagoela harremanari buelta eman beharrik, ez dagoela zertan sadiko gisa agertu benetan boteretsua izateko.

Hala eta guztiz ere, berriz ere, ez dago gizaki unitario batez hitz egiterik, egungo gizaki *somasokista* antzezte hutsa baita, makina bat aurpegi izan baititzake, zeinetan bi aurpegi (psikismo) ezberdin eta antagoniko bereiz eta nabarmendu daitezkeen.

Gizaki moderno *neurotikoak* lekua utzi dio gizaki *somasokista faltsu* bati, *histerikoak benetako* gizaki somasokista bati utzi dion bezala. Lehenengoak, bere aurrekariak ez bezala, ez du bilatzen harremanari buelta ematerik, biktimismoaren zein martiria izatearen onurak ezagutzen baititu. Bigarrenak, bestetik, bere aurrekariak ez bezala, uko egin dio askatasunarekin amesteari, jakin baitaki ez dagoela harremana sahiesterik, eta, ondorioz, jarkitzeari eta bide berriak ahalbidetzeari ekin dio.

## Bibliografia

- Agamben, G. (2005): *El hombre sin contenido*, Altera, Bartzelona.
- , (2006): *La comunidad que viene*, Pre-Textos, Valentzia.
- Apodaka, E. (2004): *Komunikazioaren gizarte psikologia*, UEU, Bilbo.
- , (2012): *Norberaren autonomia krisian*, Pamiela, Iruñea.
- Butler, J. (2001): *Mecanismos del poder*, Catedra, Madril.
- Deleuze, G. (1971): *Nietzsche y la filosofía*, Editorial Anagrama, Bartzelona.
- , (2000): *Nietzsche*, Arena libros, Madril.
- , (2001): *Presentación de Sacher-Masoch*, Amorrortu editores, Buenos Aires.
- , (2006): *Deseo y placer*, Alción editora, Córdoba (Argentina).
- Desiato, M. (1998): *Nietzsche, crítico de la postmodernidad*, Monte Ávila.
- Elias, N. (1987): *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*, Mexiko.
- Foucault, M. (2006a): *Las palabras y las cosas*, Siglo XXI, Madril.
- , (2006b): *Historia de la sexualidad. La voluntad de saber*, Siglo XXI, Madril.
- , (2006c): *Historia de la sexualidad. El cuidado de sí*, Siglo XXI, Madril.
- Freud, S. (1999a): *El malestar en la cultura*, Editorial Biblioteca nueva, Madril.
- , (1999b): *Tres ensayos sobre teoría sexual*, Alianza editorial, Madril.
- Fromm, E. (2008): *Miedo a la libertad*, Paidós, Bartzelona.
- Gadamer, H. G. (2005): *La dialéctica de Hegel*, Ediciones Cátedra, Madril.
- Hegel, G.W.F. (2007): *La fenomenología del espíritu*, Fondo de Cultura económica, Mexiko DF.
- Honneth, A. (1997): *La lucha por el reconocimiento*, Crítica, Bartzelona.
- Kojeve, A. (2006): *la dialéctica del amo y del esclavo en Hegel*, Leviatán, Buenos Aires.
- Masi, F. (2004): *La perversión sadomasoquista. El objeto y las teorías*, Lumen, Buenos Aires.
- Nieto, J. A. (2003): *Antropología de la sexualidad y diversidad cultural*.
- Nietzsche, F. (1995): *Mas allá del bien y del mal*, Clásicos de siempre.
- , (1997): *Así habló Zaratustra*, Alianza editorial, Madril.
- , (1998): *La gaya ciencia*, Albor libros, Madril.
- , (1999): *El ocaso de los ídolos*, Edimat libros, Madril.
- , (2004): *La genealogía de la moral*, Alianza editorial, Madril.

- Rorty, R. (1991): *Contingencia, ironía y solidaridad*, Editorial Paidós, Barcelona.
- Sloterdijk, P. (2005): *El desprecio de las masas*, Pre-textos, Valencia.
- , (2007): *En el mundo interior del capital. Para una teoría filosófica de la globalización*. Ediciones Siruela, Madrid.
- , (2007b): *Crítica de la razón cínica*, Siruela, Madrid.
- Taylor, C. (1996): *Las fuentes del yo*, Paidós ibérica, Barcelona.
- Weimberg, T. S. (2008): *BDSM. Estudios sobre la dominación y la sumisión*, Ediciones Bellaterra, Barcelona.
- Zizek, S. (2005): *Bienvenidos al desierto de lo real*, Akal ediciones, Madrid.



